Industria

Donostia Zinemaldia
Festival de San Sebastián
International Film Festival

Informazio Orokorra
Información General
General Information

18/26 Iraila - Septiembre - September

SSIFF Donostia Zinemaldia
Festival de San Sebastián
International Film Festival

Babesle Ofizialak - Patrocinadores Oficiales
rtve M+

Laguntzaile Ofizialak - Colaboradores Oficiales
kutxabank AMENABAR

Donostia Zinemaldiak eta Industria Saila plataforma jartzen dute industriako kide guztien esku. Plataforma horren bitartez, lana erraztu nahi zaie industriako kideei Donostian dauden bitartean, eta Zinemaldiko sail ezberdinetan aurkezten diren film eta ikus-entzunezko proiektuak sustatzen lagundu nahi da.

Salbuespen gisa, aurten...

COVID-19a dela-eta, eta salbuespen gisa, **Industriako jarduerak erabat *online*** (hots, Europa-Latinoamerika Koprodukzio Foroa, Ikusmira Berriak, Zinemaldia & Technology, Lau Haizetara, mahai-inguruak eta eskola magistralak) **edo formatu mistoan** –hau da, aurrez aurre eta birtualki– (WIP Latam eta WIP Europa berriak) egingo dira aurten.

Industriako jardueretara Zinemaldiaren webgunearen bidez sartu beharko da, Industria Online erlaitzean.

Donostian egonik Industriako akreditazioa duten pertsonek, gainera, honako hauetarako sarbidea izango dute:

- Zinemaldiko sail guztietako aretoko emanaldiak.
- **The Industry Club** profesionalentzako langunea eta topagunea, Kursaal Elkargunean, Zinemaldiaren egoitzan.
- WIP Latamen eta WIP Europan aukeratutako filmen aretoko emanaldiak (baita online emanaldiak ere).
- Jardueren Gidaren argitalpen fisikoa (baita online eskuragarria ere).

ndustriaren akreditazioak honako jarduera eta zerbitzuetarako sarbidea ematen du:

Jarduerak

***Online* %100**

- FC Europa-Latinoamerika Koprodukzio Foroa
- IB Ikusmira Berriak
- ZT Zinemaldia & Technology
- 4H Lau Haizetara Dokumentalen Koprodukzio Foroa
- Pentsamendua eta eztabaida (European Film Forum)

***Online* eta aurrez aurrekoa**

- WL WIP Latam
- WE WIP Europa

Aurrez aurrekoa %100

Zerbitzuak

- Industria Online
- Newsflash
- Zinemaldiko Bideoteka
- Zinemaldiko App-a
- Argitalpenak
- The Industry Club
- Zinemaldiko emanaldiak

Jarduerak

Europa-América Latinoamerika IX. Koprodukzio Foroa

FC

2020 iraila				O 18	**L 19**	**I 20**
A 21	A 22	A 23	O 24	O 25	L 26	

%100 *online*

arapen bidean dauden proiektuak, Europakoak zein Latinoamerikakoak, aurkezteko plataforma bat da. Hautatutako proiektuen arduradunek, *pitching* saioen bitartez, zinema-industriako kideei aurkez diezazkiekete beren egitasmoak eta hitzorduetarako agenda pertsonalizatua dute haien proiektuetan parte hartu nahi duten profesionalekin.

Aurten, foroa *online* soilik izango da. Zinemaldiaren webguneko “Industria” atalaren bidez, eta Industriako akreditaziodun gisa logeatuta, hitzorduak agendatu eta hautatutako proiektuei buruzko informazioa ikusi ahal izango da, aurrez grabatutako *pitching*ak eta material gehigarria barne hartuta. *One-to-one* hitzorduak Zoom plataformaren bidez gauzatuko dira.

+ info

Jarduerak

Ikusmira Berriak

IB

2020 iraila				O 18	L 19	**I 20**
A 21	A 22	A 23	O 24	O 25	L 26	

%100 *online*

Ikusmira Berriak produkzio-bide zein zinema-lengoaia berritzaile eta esperimentatzaileak dituzten ikus-entzunezko proiektuei laguntzeko programa bat da. Hautatutako proiektuak profesionalei eta hauen ordezkariei aurkezten zaizkie, foroaren esparruan egindako bilera-agendaren bitartez.

Aurten, Ikusmira Berriak *online* soilik izango da. Zinemaldiaren webguneko “Industria” atalaren bidez, eta Industriako akreditaziodun gisa logeatuta, hitzorduak agendatu eta hautatutako proiektu guztiak ikusi ahal izango dira, aurrez grabatutako *pitching*ak barne hartuta. *One-to-one* hitzorduak Zoom plataformaren bidez gauzatuko dira.

+ info

Jarduerak

Zinemaldia & Technology
Zinemaldia Startup Challenge

ZT

2020 iraila						
				O 18	L 19	I 20
A 21	A 22	A 23	O 24	**O 25**	L 26	

%100 ***online***

Zinemaldia & Technology-ren bigarren edizioa, Donostia Zinemaldiaren ikus-entzunezko teknologiaz eta industriaz hausnartzeko erreferentzi-gune bihurtzeko asmoz egindako apustu estrategikoa da. Jardunaldiak, **Zinemaldi Startup Challenge** lehiaketan hautatutako proiektuen aurkezpena eta ikusentzunezko berrikuntzen inguruko maisu-eskola bat. Aurten, ekitaldia *online* soilik izango da, eta mundu guztiari irekita egongo da.

Zinemaldia Startup Challenge enpresa-proiektuen lehiaketa bat da. Ikus-entzunezkoen esparruan teknologia berriak ezartzean oinarritutako ekintzailetza-proiektu berriak sortzearen aldeko apustua egiten duen ekimen publiko-pribatu bat.

+ info Zinemaldia & Technology
+ info Zinemaldia Startup Challenge

Jarduerak

WIP Latam
WIP Europa

WE WL

2020 iraila				O 18	L 20	I 21
A 21	**A 22**	**A 23**	**O 24**	O 25	L 26	

Príncipe Zinema-aretoak + *online*

Hurrengo edizioan, Donostia Zinemaldiak *work in progress* berri bat bultzatuko du, **WIP Latam**; postprodukzio-fasean dauden Latinoamerikako ekoizpenei zuzenduta egongo da eta 18 urtean martxan egon den Zinema Eraikitzen ordeztuko du. WIP Latam, **WIP Europa**rekin (Glocal in Progress berritua) eta Europa-Latinoamerika Koprodukzio Foroarekin batera, Zinemaldia sendotu egingo da bi zinematografien arteko topagune gisa.

WIP bakoitzak sei film hautatuko ditu gehienez ere, eta profesionalez osaturiko ikus-entzuleen talde bati aurkeztuko zaio hautaketa hori, filma amaitzen eta nazioartean zabaltzen lagundu dezaten. Salbuespen gisa, jarduera hori aurrez aurrekoa eta *online* izango da aurten. Filmak Principe zinema-aretoetan izango dira ikusgai eta proiektatu ondoren Zinemaldiaren Bideotekaren bidez (Cinando VL) *online* ikusi ahal izango dira, hilaren 26ra arte, larunbata.

+ info WIP Latam
+ info WIP Europa

Jarduerak

Lau Haizetara, Dokumentalen XVI. Koprodukzio Foroa

4H

2020 iraila				O 20	L 21	I 22
A 23	**A 24**	**A 25**	O 26	O 27	L 28	

%100 *online*

IBAIAk (Ikus-entzunezkoen Euskal Ekoizle Burujabeen Elkarteak) Industria Saiaren lankidetzarekin batera, garapenean dauden dokumentaletan interesa duten profesionalen arteko topagune bat eskaini nahi du, Europako koprodukzioak eta nazioarteko profesionalen artean harremanak sustatzeko.

Aurten, salbuespen gisa, jarduera bi *online* jardunalditan banatuta egongo da. Jardunaldi horietan, ekoizleek Europako *commissioning editors* eta sektoreko profesionalez osatutako panel nabarmen baten aurrean aurkeztuko dituzte euren proiektuak, eta horren ondoren, banakako bilera birtualen agenda bat izango dute.

+ info

Jarduerak

Pentsamendua eta eztabaida

%100 *online*

Industria Sailak hausnarketa, pentsamendua eta eztabaida pizten duten ekitaldi ugari hartzen ditu urtero. Aurten *online* soilik egingo dira ekitaldi horiek. Mahai-inguruak, jardunaldiak eta mintzaldiak Online Agendan iragarriko dira, eta jende guztiak izango du horietarako sarbidea.

European Film Foruma Europako Batzordeak ikus-entzunezkoen sektoreko profesionalekin elkarrizketa finkatzeko sortutako plataforma da. Saioa guztientzat irekia izango da eta *webinar*-formatua izango du.

Zerbitzuak

Industria Online

Zinemaldiaren webgunean egongo da eskuragarri, eta industriako jarduera guztiak egiteko gunea izango da, topagune birtuala, hain zuzen.

Gainera, Zinemaldian hautatutako filmei dagozkien kontaktuen zerrenda eta Industriako profesional akreditatuen datuak eskuratu daitezke, hala *online* nola aurrez aurre. Zerrenda hori egunero eguneratzen da.

Newsflash

Irailaren 18tik 26ra, industriako profesionalek hurrengo eguneko **agenda profesionala** eta Zinemaldian proiektatutako filmen inguruko prentsa laburpenak jasotzen dituzte.

Zinemaldiko Bideoteka

2019 Irailak 18 - Urriak 26

CinandoVL-rekin lankidetzan, ***online*** zerbitzua hau edonolako ordenagailutan ikusi ahal da. Gainera, tabletentzat doako aplikazioa baliatu du Cinandok.

Irailaren 28tik urriaren 26ra eskuragarri, industriako akreditatuak kode baten bidez sartu ahal izango dira. Kodea irailaren 18a baino lehen jasotzen da, edo Industria Sailera eskatuz.

+ info

Argitalpenak

Industriako **Jardueren Gidak** industriako jardueretan hautatutako proiektu eta filmen gaineko informazioa biltzen du. Gida hori Industria Online web-atalean egongo da eskuragarri, eta Zinemaldia egingo den egunetan jaso ahal izango da fisikoki.

+ info

Zerbitzuak

Zinemaldiko App-a

iOS eta Androiderako doakoa. WIP Latam eta WIP Europa proiekzioak, mahai inguruak, aurkezpenak, industria sarien iragarpena, azken orduko abisuak eta gehiagoren inguruan eguneratua mantendu zaitezke.

The Industry Club

The Industry Club, Kursaal Elkargunean kokatua, erabilera mugatuko gunea da eta Industriako profesional akreditaziodunek baino ezin dute baliatu. Interneterako sarbidea du, eta giro lasaian lan egiteko, ideiak partekatzeko eta elkarrekin biltzeko leku aproposa da.

Zinemaldiak toki segurua izango dela bermatzeko behar diren osasun-neurriak ezarriko ditu.

Donostia - San Sebastián

Kokalekuak

1 Kursaal Elkargunea

The Industry Club gunea

2 Príncipe Zinema WE WL

Eguneko jarduerak



Industria

Donostia Zinemaldia
Festival de San Sebastián
International Film Festival

Industria Sailak eskerrak ematen dizkie Eusko Jaurlaritzaren Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailari eta Europa Creativa - MEDIAri, beren funtsezko babesagatik.

Donostia Zinemaldiko Industria Saila zure esanetara dago hemendik aurrera, 2019ko irailaren 18tik 26ra ospatuko den hurrengo edizioari begira.

Honakoen babesarekin

Creative Europe MEDIA

EUSKADI BASQUE COUNTRY

T. +34 943 481 217
industryclub@sansebastianfestival.com
www.sansebastianfestival.com

Instituzio kideak

DONOSTIA SAN SEBASTIÁN

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

EUSKADI BASQUE COUNTRY

GOBIERNO DE ESPAÑA · MINISTERIO DE CULTURA Y DEPORTE · icaa